

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Sozietate Publikoak eta Aldundiaren Partaidetza duten Sozietateak

### ARABAKO KALKULUGUNEA, SA

#### ADMINISTRAZIO ZUZENDARITZA

#### **Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen informatika aplikazioen mantentze zerbitzua 2017an eta 2018an eskaintzeko proiektua kontratatzeko lizitazioa**

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, sektore publikoko kontratuen le-gearren testu bateratua onartzen duenak, 141. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez, lizitazio iragarki hau argitaratzen da honako proiektu hau kontratatzeko: "Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aplikazioak mantentzeko zerbitzua, 2017ko eta 2018ko ekitaldietarako."

1. Erakunde esleitzaila:

- a) Organismoa: Arabako Kalkulugunea, SA
- b) Espedientea izapidetzen ari den bulegoa: Administrazio Zuzendaritza.
- c) Espediente zenbakia: 2017003

2. Kontratuaren objektua:

a) "Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen informatika aplikazioen mantentze lanak" zerbitzua eskaintzea, 2017an.

- b) Gauzatze lekua: Gasteiz.
- c) kontratua izenpetzen denetik 2018ko abenduaren 31 arte.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

- a) Izapidetzea: arrunta
- b) Prozedura: irekia.
- c) Era: lehiaketa.

4. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua:

Zenbatekoa, guztira: 279.256,19 euro (BEZa aparte). (balioa gutxi gorabehera: 1.117.027,70 euro), BEZa aparte.

5. Bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

Behin betikoa: esleipenaren zenbateko garbiaren edo lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

6. Agiriak eta argibideak eskuratzea:

Erakundea: Arabako Kalkulugunea SA, "Administrazio Zerbitzua"

Helbidea: Probintzia plaza, zk.g.

Herria eta posta kodea: Gasteiz, 01001.

Telefonoa: 945 181887

Faxa: 945 181913

Interneteko helbidea: [www.ccasa.es](http://www.ccasa.es)

7. Kontratistaren berariazko betekizunak:

- a) Sailkapena (taldea, azpitaldeak eta kategoriak): ez da eskatzen proiektu honetarako.
- b) Ekonomia eta finantza arloko kaudimena eta gaitasun teknikoa: baldintza pleguetan eta ezaugarri taulan eskatutakoa.

8. Eskaintzak aurkeztea:

- a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: 2016ko azaroaren 28a.
- b) Aurkeztu behar den dokumentazioa: baldintza pleguetan eskatzen dena.
- c) Eskaintzak aurkezteko lekua: Administrazio Zerbitzua.

Erakundea: Arabako Kalkulugunea SA

Helbidea: Probintzia plaza, zk.g.

Herria eta posta kodea: Gasteiz, 01001.

Zer ordutara arte: 13:00ak.

Eskaintzak posta bidez aurkeztekotan, Herri administrazioen kontratuen Legearen Erregela-mendu Orokorraren 80. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Lizitatuzaileak bere eskaintzari eutsi beharko dion epea: 2 hilabete.

9. Eskaintzak irekitzea:

- a) Arabako Kalkulugunea SA
- b) Helbidea: batzar aretoa, Probintzia plaza, zk.g. 2. solairua.
- c) Herria: Gasteiz.
- d) Data: erakunde lizitatuzaileei behar bezala jakinarazten zaien egunean, "B" gutun azala ireki ondoren.
- e) Ordua: 13:00ak.

10. Informazio gehiago: Administrazio zerbitzuan.

11. Iragarki gastuak: esleipendunaren kontura izango dira.

12. Iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidalitako eguna: 2016ko urriaren 18a.

Gasteiz, 2016ko azaroaren 4a

*Kontseilari eskuordea*

**JUAN IGNACIO URRESOLA ARECHABALA**